

Aitzol Atutxa Urrezko Aizkolarien finalean egongo da hilaren 31n

11. orrialdea

Itziar Zabala eskalatzailleak Espainiako Kopa irabazi dau

Itziar Zabalak Espainiako Eskalada Kopa irabazi dau. Txapelketea martian hasi eta abenduaren 6an amaitu zan Granadan. Zabala orain entrenetan dabil Gianni Faggiana entrenadoreagaz eta txapelketa internazionalen bat egiteko esperantzea dauka. **11. orrialdea**



Kevin Suarez eta Aida Nuñok irabazi eben Igorreko Ziklo-krosa

10. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

242

2015eko abenduaren 14a
hamabostekaria
www.begitu.org

Gabonetako programa zabala gurean

Ehun ekintzatik gora antolatu dabez eskualdean Gabonak eta urte amaiera ospatuteko. Umeen ilusinoa Olentzerok eta Gabonetako Umeen Parkeak biztuko dabe. Nagusientzat, barriz, kontzertuak edo San Silbestre eguneko lasterketak dagoz programauta, besteak beste.

Solidaridadea helburu daukien hainbat ekitaldi be antolatu dira. Diman, Beinke! jaialdian, Gure Señeak eta Gure Nahia Alkartasuna alkarrentzako dirua jasoko dabe. Alkarte honeek gaixotasun arraroak daukienen alde egiten dabe lan. Zeanurin, eleizak jatekoa batuko dau Harribide Fundazioarentzat. Fundazio honek egoera administratibo irregularran dagozan gazteen alde egiten dau behar eta

Peruko Alto Trujilloko ikastetxeko ikasleai lagunduteko be dirua jasoko dabe. Gurutze Gorriak jostailuak jasoko ditu Bizkaiko ume guztiak jostailu barriren bat euki dagien Gabonetan.

Kirol eta kultura proposamenak be ugariak dira: kontzertuak, antzerkia, zinea... herri-kirolak, mendiko kirolak... Eta zelan ez! gaztainak eta txokolatea hotzik ez pasetako. **6. eta 7. orrialdeak**



ARRATIA

Gurutze Gorriak jostailuak barriak jasoko ditu



Gurutze Gorriak jostailu barriak, ez sexistak eta ez belikoak jasoteko kanpaina abiatu dau. Jostailu bat emoterakoan, Bilbao Athletic-en partidurako sarrera bi jasoko ditu emoiak opari. Bizkaiko Gurutze Gorriak 5.000 jostailu jaso gura ditu aurten egoera ekonomikoa dala-eta, seme-alabai jostailuak erosi ezin deuten familiei bananduteko. **6. orrialdea**

ARRATIA

Arratiako Historia eta ondarea

Historiaurretik hasi eta gaur egunera arteko historia, ondarearen bidez, errepasauko dau Angel Larrea historialari zeanuriztarrak erdiko orrietara dakargun artikuluan. Zati bitan bananduta dago artikulua eta oraingo zenbakian Historiaurretik XVIII. menderainoko arkitektura zibil eta erlijiosoa azalduten dau irakasleak: Arlanpe kobako Neanderthalen arrastoetatik, XVIII. mendeko jauregi, baserri eta ermitetara heldu arte.

8. eta 9. orrialdeak

ARRATIA

Gure Esku Dago Dimako herri konsulta prestatzen hasi da

Gure Esku Dago ekimenak egituraketa barria dauka. Eskualdeka funtzionetan dau eta Arratiak ordezkari bi daukaz. 2016an herri galdeketa egingo dira hainbat herritan. Horreetako bat Dima da. Konsulta prestatzeko alkarte bat sortuko da. Alkarte aurkeztu eta herritarri alkartekide izateko aukerea emoteko urtailaren 17an jai bat egingo dabe Diman. **5. orrialdea**



FRUTERIA BEATRIZ

FRUTEA PREZIORIK ONENEAN!

ASTEKO ESKEINTZAK

GURE BEZEROEN ARTEAN OTZARA ITZEL HAU ZOKKETATUKO DOGU ABENDUAREN 23AN

EGUNERO ESKEINTZA BEREZIAK!

Lehendakari Agirre 31 Bis (Igorre) Telefonoa: 94 673 64 51

ARRATIA ZURI-BALTZEAN

SAKRAMENTINOAK: 65 URTE ARRATIAN

65 urte bertan egon ostean, aurten, bagilearen 29an, San Pedro egunean agur esan eutseen sakramentinoak Areatzari eta Arratiari. Etorri be, San Pedro egunean etorri ziran, baina 1950. urtean.

Sakramentinoen kongregazioa Julian Eymard-ek sortu eban Parisen 1856. urtean, eta XX. gizaldiaren hasieran Frantziatik etorritako talde batek etxe bat zabaldu eban Tolosan. Kongregazioa hainbat gazte hurreratu zala eta, abadegaiak Filosofia eta Teologia ikasketak burutzeko toki egoki baten beharrezana sortu jakien, eta Areatzan, 1949an zarratu zan bainuetxearen instalazioetan topau eben. Holan,

1950eko San Pedro egunean heldu zan lehenengo taldea, buru Jose Maria Nuñez Goenaga zala, gazteen formakuntzaz arduratu zan Seminario Nagusiaren gorabeherak antolatzeko.

1950eko urri lehenengoan emon jakon hasikerea Filosofia eta Teologiako ikasturteari eta holan jarraitu eben 1967ra arte. Hortik aurrera, nahiz eta Areatzan bizi, ikasketak egiten Deustuko Unibersidadera joaten ziran abadegaiak. 1970ean Bilbon, Deustuko bi pisutan geratu ziran, Areatzako etxea lau Sakramentinoak bakarrik okupatu: Juan José Nuñez Goenaga "Aita Juan Josek", Agustin Eigurenek, Martin Gorostidik eta Martin anaiak; 1971n Periko

Nuñez Goenaga eta Juan Otaegi gehitu jakiezan.

Aurrerantzean, Sakramentinoen etxeak Areatzako eskola publikoak hartu ebazan, eta Juan Jose, Agustin eta geroago Juan Otaegi Areatzako, Arteako, Arantzazuko eta Dimako parrokiez arduratu ziran, eta Zeanuriko Alzusta eta Ipiñaburuko auzuneetan mezea emoteaz be bai.

Bestalde, etxea hutsik egoanez, 1997an Gotzaindegari eskeini eutsiezan instalazioak eta "Suspergintza" alkarteak erabili ebazan, autistakaz edo elbarrituakaz lan egiteko, monitorentzat ikastaroak emoteko eta abar.

2000. urtean honako hiru honeek egozan Areatzan: Juan Jose eta Periko Nuñez Goenaga, eta Martín anaiak. Ondoren egoitzea, lehenago hotela izandakoa, saldu



1958-59 ikasturtea. Areazako Sakramentinoen Seminario Nagusiko ikasleak eta irakasleak. Behetik hasita: 1. iladan, eskoitik 3.a: Juan Jose Nuñez Goenaga "Aita Juan Jose"; 4.a Jose María Nuñez Goenaga. Behetik hasita 3. iladan, eskoiko 3.a: Agustín Eiguren.

egin eben bainuetxe eta hotel barria eregiteko eta ondoan egin-dako etxean geratu ziran sakramentinoak. Juan Jose 2014an hil zanean, Periko bakarrik geratu zan. Kongregazioako arduradunak esan eutsan fraile bat ezin

zala komunitate barik bizi eta Tolosako egoitzara joan behar zala. Azkenean, luzapen baten ostean, 2015eko San Pedro egunean agurtu zan Aita Periko, Areatzako azken sakramentinoa.

Jon Urutxurtu

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara
Abenduaren 14tik 20ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Abenduaren 21etik 27ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Abenduaren 28tik urtailaren 3ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11

22:00etatik 09:00etara

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Lucía Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago

zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Arriorriaga

Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan

06:55ean eta 13:55ean.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

Zeberio-Arriorriaga

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10,

11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriorriaga-Zeberio-Artea

Arriorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Artearaino heltzean da lanegun eta zapatuetan.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Arriorriaga-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40,

12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau

eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

Babesleak:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Irati Urien.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.

Publizidadea: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodríguez, Pablo Rodríguez eta Rut Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Esti Olibares, Igor Perez eta Azibar Sagarna (Igorre) eta Ainhua Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.800 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Aldaketa klimatikoa heldu da Arratiara

Aldaketa klimatikoa heldu da gure lurraldera, gure artean dago eta geugaz geratuko da... betiko. Baina ez da egun baten edo urte gitxitan sortutako aldaketea, apurka-apurka sortu eta elikatu dogu danon artean gure jarkerakaz, eta dogu dinot batez be gizaki konsumitzaileok ospatzen gabilzan jaialdiaren odorioetako bat dalako. Bestalde, aldaketa klimatikoa ez da kausa-efektu fenomeno simple bat, baizik eta eragin askoren arteko erlazinoen emoitzea, eta efektuak desbardinak dira denpora eta espazioaren eskalen arabera. Hori dala eta, ez da bat be erreza aldaketa klimatikoaren garapena aurreikustea.

Ziurbakotasun horrek eragozpenak sortzean deutse kudeatzaileai ingurumen politikak adostu, ebatzi eta martxan ipini behar dabezan. Hata guzti be, guztiz beharrezkoa da moldaketa-gaitasuna

eregitea aldaketearen ondorioai aurre egiteko, eta lan horretan erakundeak izan behar dira buruzagi planifikazioan eta ebatziak hartzerakoan. Adituen arabera, moldaketa-gaitasunaren eraikuntza eraginkorra izan daiten ondorengo bost oinarritan egituratu beharko litzateke: 1. Ikuspegi globala go-goan hartu: lurraldea sistema legez kudeatu. 2. Ziurbakotasuna kudeatu: informazio zientifikoa erabili eta gaurkotu jarraipen sistemea ezarri. 3. Aldaketea beti izan behar da kontuan planifikazioan eta kudeaketan. 4. Gobernantza-tresna barriak garatu egoera barrira begira. 5. Gizartearen parte-hartzea hobetu, baita aldaketa klimatikoari buruzko sentsibilizazioa be.

Esan dogunez, hemen daukagu aldaketa klimatikoa bere eragin eta ondorioakaz, eta danon ardurea da egokitzea eta aurre egitea. Gandhik esan ebanez, "zeu izan behar zara munduan ikusi gura dozun aldaketea".

IGORRE BIZIRIK HERRI PLATAFORMEA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, begituk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Mixar / Katamixar



Arboletan bizi dan animalia txiki eta bizkor honek frutu sikuak jaten ditu, barbarako intxaurrak, hurrak eta pinubolak. Buztan luzea eta ule gorriskea dira katagorriaren ezaugarriak. Honako izen bi honeekaz ezetuten dogu Arratian: mixar (Diman eta Igorren jaso) eta katamixar (mixerra eta katamixerra, agoskatuta). Gaur egun, horreen orde, euskera batutik hartutako urtxintxa berbea gero eta gehiago entzuten da, gazteen artean batez be.

ERETXIA

Ikuskizunak aurrera egin behar dau

Ikuskizunak ez dauka etenik, ezin dau euki, hori da bere oinarrietako bat. Eta hauteskunde kanpainak be, ikuskizun hutsa bihurtu diranetik, ez daukie etenik, zoritxarrez. Inok gogoratzen dau kanpainan egon ez garran momenturen bat?

Teorian, abenduaren 20ko hauteskundeetako kanpaina abenduaren 4an hasi zan. Eta teorian dinot, praktikan, egunero-rokoan, aspalditik gagozalako kanpainan. Holan sortu ziran "aurre-kanpainak". Kanpaina ez dana, aurre-kanpaina da. Politikan, propagandan, ez dago atsedetik. Antxinako greziarrak Joko Olinpikoen eta Olinpiaden arteko banaketea egiten eben. Olinpiadak Joko Olinpiko batzuen eta hurrengoan arteko denporeari deitu eutsien; jokoak prestatuteko denporeari, hain zuzen be. Gaur egungo hauteskundeak antzera gertatzen da: alde batetik, hauteskunde kanpaina dago; bestetik, aurre-kanpaina, kanpaina batetik bestera dagoan denporea. Eta zein da horren ondorioa? Egunero-egunero, kanpaina "ofizialean" egon ala ez, alderdi politikoen propaganda sistemen eraginpean gagozala.

Baina abenduaren 20ko kanpaina eta aurre-kanpaina badauka berezitasunik, eta berezitasun horreek alderdi politiko "barrien" sorrereagaz lotuta dagoz. Podemosek eta Ciudadanosek ez daukie ordezkariik Espainiako Parlamentuan, baina herritar askoren hasarrea eta nekea batzeako kapaz izan dira, eta horrek kontuan hartzeako indarra (eta eragina) emon deutse. Horren aurrean, inok ezin dau ezikusiarrena egin, batez be egungo politikearen nondik norakoak aztertu gura badoguz. Datu esanguratsua: historian lehenengoz, Parlamentuan ordezkariarik ez daukien bi alderdik (Podemosek eta Ciudadanosek) hauteskun-



LEIRE ETXAZARRA
Kazetaria

litikan eukan interesa guztiz galduta eukala emoten ebanean, kontrako fenomeno gertatu da. Herritarren plataformak atzeneko hauteskundeetan eukitako arrakasteak politikeagazko interesa bizibarritu egin dala frogatzen dau. "Politika barria" dalakoak lortu ei dau hori.

Hautesleen artean be aldaketak dagoz, garai barriak, krisiak, ustelkeriak eta politikeagazko (eta politikariakazko) mesfidantzearen ondorioz. Lehen, botoa aldatutea arraroa zan, hauteslea fidela zan bere alderdiagaz. Hauteskundeak joan eta etorri, botoa beti alderdi bateri emoten eutsan, salbuespenak salbuespen. Horregaitik, kanpainak eragin txikia eukien hauteskundeen emoitzetan: hautesle gehienak botoa aurretik ebatzita eukielako.

Gaur egun, ostera, botoa aldatuteak ez dau kontzientzia arazorik ekarten: izan leike, hauteskunde batzuetan alderdi edo hautagai baten alde egitea, eta hurrengoetan, desengainuak, nekeak, hasarreak edo asperaldiak bultzatuta, beste baten alde egitea. Ideologiak ez dauka lehengo garrantziarik, alderdiak argi daukie hori, eta horregaitik faktore ideologikoak pisua galdu dau, irudiaren eta ikuskizunaren aurrean. XXI. mendeko gizartea irudiak gobernatutako gizartea da, eta irudiaren eskutik, ikuskizuna dago. Gure pentsamoldea begitik sartuten jakunak (irudiak) egituratzen dau, belarririk sartuten jakunak (argumentuak) baino gehiago.

The show must go on (ikusizunak aurrera egin behar dau) inoan Queen taldearen kanta famaduak. Hedabideen, irudiaren eta sare sozialen garrantziak eten barik gora egin dauanetik, politikea eta hauteskunde kanpainak ikuskizun bihurtu dira, onerako eta txarrerako. Hautesleak be orokorrean kritikoagoak gara, aldakorragoak, eta horregaitik alderdien kanpainak, aurre-kanpainak eta dana dalakoak ezin dabe etenik euki. Gu erakarten ahalegindu behar dira, gehienetan aspertu egiten gaituen arren.

deetako eztabaida nagusian parte hartu dabe eta Parlamentuan ordezkariak daukiezan beste alderdi batzuk (IU, UPyD) baztatu dabez.

Adituak dinoenez, jentek po-

LUMATUTEN



**JUAN MANUEL
ETXEBARRIA AYESTA**

Gabon-otzarea

Aldi bateko Gabonetatik gaurkoetara, alozoko bide-arloa egiten dagoiugu ohituren bidean. Gaur, Gabon-otzarea deritxagun ohitura zaharraren jatorria azaltzeko adia daukotsuet.

Lehenago, gure baserrietan etxekadak bizi ziran eta zelanbaist bizimodua atera behar eta, ba, etxaguntzan geratzen ez zanak, ba, ezkondu, fraile edo monja sartu edo solteru jarraitu behar.

Herri-esakereak dinoskunez, "beleak bere hatxera" egiten dau eta personak be gurasoen etxera joteko usadioa egon da batez be egun handietan.

Egun handiotako bat Gabon eguna izan dogu eta badogu oraindino be zorionez.

Baina, lehenago ez egoan gaurko modurik eta Gabon eguna heltzean zanean gure baserriak bete-bete egiten ziran, batez be ezkonduak euren ume eta guzti joakeran. Zelango etxekadak!

Eta nok emon jaten hainbeste

personari? Baserrietan, baegoan egon generoa, zeinda, laberik harako erraria, ogi, pamitxa, tremes, arto edo, faltara, labeiger artouruna talotarako. Horrezaz gain beti egoan txarriak, zezina, hegaztiak, konejuak, eta ortuan berdurak, porruak eta azak batez be tertzio horretan, porru-saldea edo orio-azea gozo-gozo jateko; a! eta karakolak, Gabon-bijilia jagoteko. Gainera, aurretizdik gordetan ziran fruta guzaz, gordinik, erreta edo konpotan jateko eta sikuetan barriz, gaztainak, urretxak, intxaurrak intxaur-saltsarako eta abar.

Hata guzti be, etxeko generotik aparte gehiago behar izaten zan eta horretara, gurasoen etxera Gabonak egiten joaten zanak, gitxi-gehiago, beti eroaten eban otzara bete gabonkari, batez be baserrian ez egoan generoa, zeinda, arrain fresko zein sikua, turroi zein gainteko gozokiak eta txurrunplin-edabeak.

Gabonkari-otzara horretatik dator Gabon-otzarea deritxaguna. Lantegietan be egon da Gabon-otzarea oparitzeko ohiturea eta azken urteotan, denda, txoko, kirol talde, ikastetxe eta abarretan be bai, baina zozketa bidez dirua lortzeako.


Gabon-otzarea eroatearen ohitura zaharra be aldatuz doa eta zelan gainera. Oraindino askok eusten deusagu gurasoai Gabon-otzarea eroateko ohitureari Gabonak familian ospatzeko.

Garaiak garai eta ohiturak ohitura, aurrera egin bai, baina ez daiguzan gauzeztandu aurrekoengandiko euskal hagea, sena eta izakera zintzoa, euskaldun izan eta euskeraz biziteko etorkizunean.

ZERTZEAN



SAIOA LARREA



BEGI TXINDORRA

Urte osoan trankil-trankil bedartza gozoetan ibili ostean, heldu jakie astotxoai Olentzerori lagundu eta behar apur bat egiteko ordua. Bai, behar apur bat. Ze gaur egungo astoen bizimodua ez da errementau arte behar egitea! Garaiak asko aldatu dira eta baserriko lanaren mekanizazioak astoen bizimodua aldatu dau guztiz. Bizimodu modernoak aisialdia ekarri deutse astoai.

Hiru honeek, barbarako, hor dagoz hesi baten atzean, jentearen joan-etorriai begira. Jentea hor dabil, parau barik, danera heldu ezinik, gero eta ardura gehiago aldean hartuta, galapan leku batetik bestera, noraezean. Arin-arin, biziteko asti barik. Berba baten, errementauta.

Baserriko lanaren mekanizazioaren aurretiko astoak legez.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarregia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Blokala
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zirkulari 101
R.P.S. 21/06

OPEL
Ibaigane, S. Coop. Ltda.
Estazioa, 15
48330 LEMDA (Bilbao)
Tels. 631 33 30 - 631 31 31
Fax 631 36 15

24h Egunkari Ogi
EGUNEKO OGIA
vending pan
IGORRE
Lehendakari Agutse

DIMA

"Beinke! Guk be in geinke" gaixotasun arraroak daukiezanen aldeko jaia



Arrastiko zazpiretan hasiko da Beinke ikuskizuna. Gazte Barri jantza taldearen ostean, "Beinke!" bideoa aurkeztuko da eta ondoren, Arkaitz Estiballesek eta Kepa Intxaustik bertso-saioa eskeiniko dabe. Herri-kirrol erakustaldiak egongo dira gero eta Tubik Lasto Altxatze marka barri bat ezartzen saiatuko da. Eskean Kristök kontzertua eskeiniko dau eta gero, Bihotz Gorospek eta Ibon Izak sortutako "Guk be in geinke" abestia abestuko dabe. Amaituteko zozketea egongo da. Ikuskizunetarako sarrereak 15 euro balio dau.

Afaria 21:30ean izango da. Ondoren enkantea eta Jokaldi taldeagaz erromeria. Umeen afarirako txartelak 7 euro balio dau eta helduenak 15.

Erredakzinoa

Gaixotasun arraroak daukiezan pertsonen bizimodua hobetuteko dirua batzeako jai solidarioa antolatu dabe Diman. Abenduaren 19an izango da frontoian. Ikuskizun bik eta afariak osotuten dabe jaialdia.

Lehenengo ikuskizuna 17:15ean hasiko da eta txikerrenai dago zuzenduta. Gazte Barri jantza taldea hasiko da eta ondoren Irien Lagunak-ek Ane Pirata ikuskizuna eskeiniko dabe.

IGORRE

Tonbolan batutako dirua sakristia konponduteko izango da

Erredakzinoa

Igorreko Sabino Arana kaleko 1 zenbakian, Koipe Etxean, izango da aurten tonbola solidarioa. Abenduaren 17, 18, 19 eta 20an egongo da zabalik, goiz eta arrastiz. Betiko lez, euro baten truke, opari ugari zozketatuko dira bertan.

Aurreko urteetan, Peru eta Kongon dagozan Igorreko misinolari biri bialdu jakie dirua, baina aurten, "eleizeak dirua behar ebala sakristia konponduteko ikusita" horretarako emotea ebatzi eben batzar baten.

Urte osoan zehar andra talde batek egin eta jasotako gauzak zozketatuko dira. Atzen egunean, otzara batzuk zozketatuko dira boletoak erosi dabenen artean. Horregaitik, boletoa sariduna izan zein ez, gordetzeko gomendatzen dabe antolatzaileak, otzarearen zozketan sartuko da eta.

ARRATIA

Presoen giza eskubideen aldeko manifestazioak

Erredakzinoa

Sarek urtailaren 9an, Bilbon antolatutako manifestaziorako "motorrak berotuteko", "Dimen etxean gura doguz alkarteak" abenduaren 27an, presoen giza eskubideen aldeko eguna antolatu dau Diman. 12:30ean, kartzelarako km. seinaleak pintauko dabez eta 13:30ean ekitaldi nagusia izango da herriko alkarteen ekarpenakaz.

Sarek bideratutako dispersioaren kontrako mozinoa be aurkeztu dabe udaletxean.

Lemoa

Urteko azken egunean, abenduaren 31n, "Bagoaz, bagabilz, badatoz"ek manifestazioa antolatu dau Lemoan; hau be, presoen eskubideen alde. Arrastiko 18:30ean, Elizondoko plaza gorritik abiatuko da.

ARRATIA

Arratia mailan egituratu da Gure Esku Dago



Erredakzinoa

Gure Esku Dago (GED) herri ekimena da eta herri bakotxa bere erara antolatu izan da oraintsu arte. Uda ostean, barriz, Eskura

prozesua ipini zan martxan eta honen egituraketa barria ekarri dau. Zuzendaritza Batzordea antolatu da liberatutako jentegaz, lurraldeetako arduradunak be badagoz eta eskualdeko ordezkariak. Arratiak

ordezkari bi daukaz.

Hiru urtetako prozesua da Eskura, 2015-2018 bitartekoa. Urte horreetan, konsultak egingo dira herri batzuetan. 2016an, herri konsultak Goierriko 22 herrietan, Ispasterren eta Diman egingo dira.

Diman herri konsulta

Herri konsulta hori prestatzen hasi da GED Dima, eta urtailan ekitaldi bat egingo dabe herritarrei eginbidea aurkezteko eta alkartean parte hartzeako aukerea emoteko. Izan be, marko legala errespetetako alkarte bat sortu da konsultara deitzeako. "GED lantaldeak hor segiduko dau baina aurten Diman erronea konsulta izango da. Konsulta hori alkarte batek eta GEDko kideak bideratuko dabe. Urtailearen 17an jaitxo bat egingo dogu eta herriari emongo jako aukerea alkartea ezetuteko eta alkartekide izateko" dino Itziar Esparta Dimako Gure Esku Dago kideak.

ARRATIA

Boltsa konpostagarriak edukiontzi marroirakoErredakzinoa

Gabonetan Arratiako dendetan erosketak egiterakoan boltsa konpostagarriak debalde bananduten hasiko dira. Kolore berdeko boltsa honeek edukiontzi marroirako aproposak dira. Holan, edukiontzi marroian apuntuta dagozanak, modu errezean lortuko dabez boltsa konpostagarriak.

Edukiontzi marroia erabilten hasi gura dabenak, udaletxeetan eta Mankomunidadean emon daikie izena. Bertan, behar dituen material guztiak jasoko dabez: baldea, boltsa konpostagarriak, edukiontzi zabalduko giltza, informazioa...

Beste helburu bat be badaukie boltsa honeek, izan be, hain kaltegarria dan plastikoen erabilpena murriztu gura dau Mankomunidadeak.



ARRATIA

Turroi eta gaztainen sasoian ekintza ugari plaza, kale eta mendietan

Gabonak, neguko solstizioa, edo urtea amaitzeaz dagoala ospatuko dabe Arratia, Ubide eta Zeberioko ume eta nagusiak, herriko kale eta plazak betez. Turroia eta gaztainak ez dira faltauko, ezta Gabonetako kontzertu tradizionalk, umeentzako parkeak edo San Silbestre eguneko lasterketak. Antzerkiak protagonismo handia hartuko dau Igorren, lau lan programau dabez-eta, eta bertsolariak be egongo dira Igorren eta Lemoan.

Erredakzinoa**Arantzazu****Abenduak 24, eguena**

10:00etan, Olentzero abestu auzuneetatik, plazatik hasita. **12:30**ean, Olentzeroren etorrera plazara, Eleizportaleko Gazte Asanbladak antolatuta. Ostein gaztain erreak Arginatx Mendi Taldearen eskutik.

Abenduak 29, martitzena

10:00etan, puzgarriak. **12:00**etan, Asier Kidam magoa Kulturgunean.

16:00etatik **18:00**etara, Zaztaparrak antolatuta, puzgarriak eta umeen jolasak.

Urtilak 3, domekea

20:00etan, monologoa. Oihan Vega.

Areatza**Abenduak 19, zapatua**

09:00etan, Lamino Mendi Taldeak Basauriko Baskonia Mendi Taldeagaz batera antolatuta, Mendiaganako buzoï barria ipini. Eleiz portal aurrean. Parketxeak antolatuta urte amaierako Gorbeiarra igoera.

20:00etan Soul meeting The Quiet Comer-en.

Abenduak 20, domekea

10:30ean, eleiz portal aurrean, autobus Euskalduna Jauregira Bilboko

Udal Bandaren *Descubriendo la Navidad* kontzertura joateko. AKKBk antolatuta. Kontzertua **12:00**etan.

Abenduak 21, astelehena

17:00-19:30 postalak egin eta etxeetara bialdu Gabonak zoriondu-teko. Ludotekan. Guraso Elkarteak eta Ludotekeak antolatuta.

Abenduak 22, martitzena

17:00-19:30 Olentzerori bialduteko gutuna egin eta postontzian sartu. Ludotekan. Guraso Elkarteak eta Ludotekeak antolatuta.

Abenduak 23, eguaztena

17:00-19:30 Gabonetako apain-garriak egiteko tailerra. Ludotekan. Guraso Elkarteak eta Ludotekeak antolatuta.

19:00etan *Olentzero* filma udaletxe-ko Areto Nagusian. Guraso Elkarteak antolatuta.

Abenduak 24, eguena

17:00etan Olentzero plazan. Guraso Elkarteak antolatuta.

Abenduak 30, eguaztena

19:30ean frontoian Areatzako Bandaren urte amaierako kontzertua. Musika Eskolako gazteak be hartuko dabe parte.

Abenduak 31, eguena

09:00etan, Laminin antolatuta, urte amaierako mendi urtekerea. Siskino eta Oketa mendiak Ubidetik.

Artea**Abenduak 24, eguena**

Arrastiz Olentzero ospakizuna.

Abenduak 26, zapatua

18:00etan, gaueko orientazio lasterketea, edozein edadetakozentzat. Plazatik urtenda. Ondoren txixi-buruntzia. **19:30**ean, Gabon kantak plazan.

Bedia**Abenduak 16, eguaztena**

16:30etik **19:30**era, hilaren 22ra arte, Gabonetako Postal Lehiaketako marrazkiak batzea. Liburutegian.

19:00etan, Arratia Musika Eskolaren kontzertua Bediako eleizan.

Abenduak 18, barikua

Gabonetako jaiak. **17:00**etan, Bigarren Eskuko Azokea. Biltzean dan dirua elikagai bankuarentzat izango da. **18:00**etan, korr-jantzak, Bediako korr-jantzen taldea eta euskal jantzak umeen taldeagaz. **18:30**ean, Zumba Masterclass. **19:30**ean, txorizo eta turroia banandutea. Eleizalde Bediako Jubilatua eta Pentsionisten Elkartearen eskutik.

Abenduak 20, domekea
11:00etatik **14:00**etara, Bediako parrokiak antolatuta, Alkartasun den-dea. Peruko Alto Trujilloko Fe y Alegría eskolaren alde katekesiko umeak egindako eskulanak plazan.

IGORRE

Igorren geratzen ziran plaka frankistak kendu ditu ErnaikErredakzinoa

Zemendiaren 29an, Ernai antolakundeak deituta, Arratiako gazte batzuk Igorren batu ziran Lehendakari Agirre kalean geratzen ziran plaka frankistak kentzeako helburuagaz. Orain dala urte batzuk hasi ziran lan horretan, eta "etorkizun baten beste herri batzuetan geratzen diranak kentzeako" asmoa adierazo dabe Ernaikoak.

Igorren kendutako plakak, abenduaren 6an, Durangon Ernaik deitutako manifestazinora eroan ebezan, "gainontzeko herrietako aldarrikapenakaz batera Espainiari agur" esateko. "Honegaz, jai egun arrotzak, hezkuntza sistema inposatua, lege zapaltzaileak eta prekariedadeagaz amaitu eta herri aske, sozialista eta feminista eregiteko bidean, bagoaz!" azaldu eutsien BEGITURI Ernaikoak.



ARRATIA

Gurutze Gorriak jostailu barriak, ez sexistak eta ez belikoak jasoteko kanpaina abiatu dauErredakzinoa

Egoera ekonomikoa dala eta, datozan Gabonetan euren seme-alabai jostailuak erosi ezin deuseen familiei emoteko, jostailu barriak jasoko ditu Gurutze Gorriak. Aurten Athletic Club taldeak kanpaineagaz bat egin dau eta abenduaren 21eko Bilbao Athletic-en partidurako 12.000 sarrera emon ditu. Jostailu barriak emoten dabezanak, partidu horretarako sarrera bi jasoko dabez. Igorreko Gurutze Gorrian dago jostailuak batzeako puntu bat.

Ez da jostailuak batzeako puntu bakarria; izan be, beste batzuen artean, Athletic Club taldeko denda ofizialetan, Bilboko Erriberako merkaduan, Megaparako Toysrus dendan, Corte Ingles-ean, Jugettos-en eta Ilean jostailuak ixteko kutxak

egongo dira. Aurten, lehenengoz, Decathlon be kanpaina honetan sartu da eta horrek emoten dau aukerea ume hazitxoagoentzat be opariak jasoteko. "Igaz 12 urte artekoentzat izan zan, aurten 14 urtekoak be kanpaina barruan dagoz" dino Idoia Zuloaga Gurutze Gorriako Gizarte Teknikariak.

Aurtengo erronka Bizkaian 5.000 jostailu batzea da; 2014an, 998 umeak jaso ebezan Gurutze Gorriako boluntarioak bildutako jostailuak.

Jostailu barrien usaina

Jostailu bilketea egin ostean, banaketea egiten da asanblada bako-txaren beharizanen arabera. "Beste leku batzuetan jostailua umeai zuzenean emoten jakie, baina guk Arratian pentsau dogu politagoa dala familiei emotea, jostailua eu-

rak emoteko etxean, intimidadean" dino Zuloagak. Hilaren 21ean edo 22an, Olentzero eguna baino lehenago, bananduko deusez jostailuak premia daukien familiei eta umeen edadea eukiko dabe kontuan jostailuak aukeratuteko orduan. Arratian 50 ume inguruk jasoko dabez kanpaina honetan bildutako jostailuak.

Zuloagak gogora ekarri dau kanpaina honetan ez dala jasoko erabilitako jostailurik. Ez da birziklapen kanpaina bat, umeen eskubideen aldekoa baino. Izan be, "ume guztiak daukie eskubidea plastikoa zabaltzeko, kutxa barriaren usaina somatzeko eta jostailu barriaren distiraz gozatuteko".

**Idoia Zuloaga eta Xabier Pastor.**

Abenduak 21-22, astelehena eta martitzena

17:00etan, Gabonetako tailerrak ludo-
dotekan.

Abenduak 23, eguaztena

17:00etan, Gabonetako apaingarriak
heritik ipini, Gabon kantak abesten.
Ondoren txokolatea. Ludotekatik
abiatuta.

Abenduak 24, eguena

09:30ean, Olentzero. Plazatik hasita
auzorik auzo kantuan; **13:30**ean
Olentzero plazara joango da umeakaz
egoteko. Gaztaina erreak jaten itxoin-
go deutsie.

Abenduak 28, astelehena

10:00etan Urtekerea BECeko Ga-
bobetako Umeen Parkera. Bazkaria
eta meriendea eroan behar dira. Be-
giraleak egongo dira.

Abenduak 29, martitzena

10:30etik **13:30**era ludotekea zabalik.

Abenduak 30, eguaztena

11:00etatik **14:00**etara eta
16:00etatik **19:00**etara, Gabonetako
Parkea frontoian.

Urtailek 4, astelehena

17:30ean, Gabonetako pelikula lu-
dotekan.

Urtailek 5, martitzena

18:30ean, Erregeen Kabalgatea. Au-
rretik txokolatea bananduko da.

Dima

Abenduak 19, zapatua

"Beinke! Guk be in geinke" jaialdi
solidarioa frontoian. **17:15**ean, Gazte
Barri jantza taldea; **17:30**ean, Iriren
Lagunak-en *Ane Pirata*; **19:00**etan,
ikusizuna; **21:30**ean afaria.

Abenduak 22, martitzena

17:30ean, *Margo ipuinak* liburutegian.

Abenduak 24, eguena

18:00etan, Olentzeroren jeitsiera.

Abenduak 27, domekea

12:30ean, "Harriak mugi daitezten"
presoen eskubideen aldeko ekitaldia.

Igorre

Abenduak 17, eguena

19:00etan, Arratiako Musika Eskolako
Gabonetako kontzertua Lasarte Are-
toan.

Abenduak 18, barikua

20:00etan, Nagusientzako antzerkia.
Rude Teatrok *Arte* antzezlan antzez-
tuko da Lasarte Aretoan.

20:30ean Larregi taldearen kontzer-
tua Kiñu Gaztetxean.

Abenduak 19, zapatua

18:00etan, Arantzarte jantza taldeak
jantza saioa Lasarte Aretoan.

18:00etan, pelota partiduak. Eskola
umeak eta partidu profesionalak.
Eskupilota Taldeak antolatuta. Kirol-
degian.

20:00etan, Gabonetako kontzertua.
Luis Iruarrizaga Abesbatza, Lemoako
Abesbatza eta Zeanuriko Abesbatza
Lasarte Aretoan.

Abenduak 23, eguaztena

20:00etan, Zeanuriko Etzanderak
jantza taldea Lasarte Aretoan.

Abenduak 24, eguena

12:00etan, Olentzero dator Mikeletik.

Abenduak 26, zapatua

20:00etan, Zeani Antzerki Taldeak
37 bentanea 38 pasilloa antzeztuko

dau. Ondoren AMEren Gabonetako
3 otzararen zozketea. Lasarte Are-
toan. AMEK antolatuta.

22:00etan, Gaueko Zumbatoia esko-
lako aterpean.

Abenduak 27, domekea

18:00etan, umeentzako antzerkia
Faboo Lasarte Aretoan.

Abenduak 28, astelehena

17:00etan, Jostailu Azokea. Zaztapa-
rrak, Maratu gazteak eta Eizu Kiñuren
eskutik. Lasarte parkean.

20:00etan, antzerkia nagusientzat,
Yllana taldeak *Chefs* lana antzeztuko
dau Lasarte Aretoan.

Abenduak 29, martitzena

18:00etan, Ines Bengoa ipuin konta-
laria Udal Liburutegian.

Abenduak 30, eguaztena

11:30etik **13:30**era eta **16:30**etik
19:30era, Gabonetako Umeen Par-
kea, Motxoganen tailerrak, aterpean.

20:00etan, Ganzabal Mendi Taldeak
antolatuta, Alberto Iñurrategiren
berbaldia "Porrotaren alde". Lasarte
Aretoan.

Abenduak 31, eguena

VII. San Silbestre lasterketea. Mo-
zorrotuta. **11:00**etan izen emotea;
11:30ean hasikerea.

Urtailek 2, zapatua

19:00etan, Areatzako Bandak Erre-
genetako kontzertua Lasarte Aretoan.

Urtailek 3, domekea

19:00etan, *Irudibertsotan*, irudi eta
bertso ikuskizuna. Arratiako Bertso
Eskolearen eskutik. Lasarte Aretoan.

Urtailek 5, martitzena

18:30ean, Erregeentako Kabalgatea
Mandoia kaletik.

Urtailek 7, eguena

11:30etik **13:30**era eta **16:30**etik
19:30era Gabonetako Umeen Par-
kea, Zaztappararen tailerrak. Aterpean.

Lemoa

Abenduak 17, eguena

18:00etan X. Marrazki Lehiaketaren
sari banaketeta.

Abenduak 18, barikua

10:00etan, JB Eguzkitza Meabe Ikas-
tetxeak antolatuta Gaztaina Eguna
eskolan.

19:00etan, Lemoako Korlak eta
Arratia Musika Eskolak antolatuta, Ga-
bonetako kontzertua Andra Mari Elei-
zan. Lemoako Abesbatzen Elkartea,
Arratiako Musika Eskola, eta Altzaga
Abesbatza (Erandio).

Abenduak 19, zapatua

Ganzabalek eta JB Eguzkitza Meabe
Ikastetxeak antolatuta, Turroi Eguna.
Ubide. Siskino (854 m.).

19:30ean, Gibelurdinek girotuta po-
teo musikatua Kodigoa tabernatik.

Abenduak 20, domekea

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta,
goizeko ibilaldia Arratiatik.

Abenduak 21, astelehena

Goizean zehar JB Eguzkitza Meabe
Ikastetxetik Olentzero eta Maridomi-
gi udalxera eroango ditue. Arrastian
Santo Tomaseko azoka txikia eskolan.

17:30ean, Arratia Musika Eskolako gi-
tara ikasleen emonaldia Jubiladuen
Etxeko goiko aretoan.

Abenduak 22, martitzena

10:30ean, BECeko Gabonetako

Umeen Parkera urtekerea. Bazkaria
etxetik eroan behar da.

Abenduak 24, eguena

Olentzero eguna. **11:00**etan udale-
txetik abiatuta, auzorik auzo Olentze-
ro eta Maridomingaz Gabon kantak
abestu eta Elizondon saldea eta
txokolatea bananduko dira. Elizondon
Kultur Gunean Olentzero eta Marido-
mingaz egoteko aukerea. Gozokiak
bananduko dira.

Abenduak 25, barikua

Ganzabalen urtekerea Anbotora.

Abenduak 26, zapatua

19:30ean, bertso-poteo musikatua.
Arkaitz Estiballes eta Jone Uria ber-
tsolariak eta Oxabiren lagunak. Kresa-
la tabernatik hasita.

Abenduak 29, martitzena

11:00etatik **14:00**etara eta
16:00etatik **19:00**etara, Haur Parkea
kiroldegian. Txikigunea, tailerrak, puz-
gariak, karts pista, jumping-a...

Abenduak 31, eguena

12:30ean, Eneko Zamalloa me-
moriala. Lemoako VI. Gabonetako
Lasterketea. Elizondon. Hiru ibilbide
egongo dira. Ostean herri poteoa.

Urtailek 4, astelehena

10:00etan, Bilbora urtekerea 4, 5 eta
6. Mailakoak. Bazkaria etxetik eroan
behar da. Itzulera ordua **17:30**ean.

Gabonetan ludotekea goizez zabal-
duko da: abenduaren 22tik urtailaren
5era arte (egun biak barne). Ordu-
tegia: **11:00**etatik **14:00**etara. Ludo-
tekea egun honeetan itxita egongo
da: abenduaren 22an eta 29an, eta
urtailaren 4an.

Lemoako Karabie Gaztetxea

Proiektu zinematografiko baten aurkezpena

Lemoako Harriketarrak Gazte Asan-
bladeak aurkeztu dau bere sasoi
honetako programea. Urtero lez,
umeakaz egongo dira gazteak eta
eurentzako ekintzak prestatu da-
bez. Antzerkia, kontzertuak, truke
azokea... eta nobedade moduan,
"Korto express" Lehiaketea. Urtaile-
ren 1ean berba bi emongo dabez
Gaztetxean eta urtailaren 3rarte eu-
kiko dabe partaideak berba horreen
inguruko bideo bat egiteko. Hurren-
go egunean, ABD proiektu zinema-
tografiko kolektiboaren aurkezpena
izango da Karabien.

Abenduak 21, astelehena
Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkun-
tzakoakaz, Karabie Show Eskolan.

Abenduak 24, eguena

18:30ean, Olentzero Karabien.

Abenduak 27, domekea

19:00etan, dokumentala *Bisaiak*,

jauziaren aurpegiak.

Abenduak 28, astelehena

Txatxakume Eguna. Bazkaria.

21:00etan, The Jeloskors taldearen
kontzertua.

Abenduak 29, martitzena

20:00etan, Pintxo Lehiaketea.

Abenduak 30, eguaztena

Antzezlan, *Adarretatik zintzilik*.

Abenduak 31, eguena

12:00etan, Truke Azokea arkupetan.

Urtailek 1, barikua

"Korto Express" bideoak egiteko ber-
ba bi aterako dabez Gaztetxean ha-
mabostaldian zehar egondako kutxe-
tatik. Berben inguruko bideoa egiteko
domekararte daukie partaideak.

Urtailek 2, zapatua

23:00etan, Runto Selektor DJ eta
gero Iseo DJ.

Urtailek 3, domeka

19:00etan, Korto Expres Lehiaketan
bideoak aurkezteko ordua. Kopau-
txoagaz batera bideoak ikusi.

Urtailek 4, astelehena

19:30ean, ABD proiektu zinema-
tografiko kolektiboaren aurkezpena.

Ubide

Abenduak 19, zapatua

16:00etan, herriko plazatik men-
dira gutuna eroatera. **17:30**ean,
txotxongiloak *Ongi etorri Olentzero*.
Ondoren gaztainak eta txokolatea.
18:00etatik **20:00**etara, Gabone-
tako Azokea. Elikagaien bankurako
janari bilketeta.

Zeanuri

Abenduak 16, eguaztena

18:30ean, Musika Eskolako kontzer-
tua Kultur Etxean.

Abenduak 17, eguena

19:00etan, *Arrasate 1936: emakumea, gerra eta errepresioa*
dokumentala eta Intxorta 1937
alkarteko kide dan Julia Mongegaz
berbaldia.

Abenduak 18, barikua

19:00etan, "Kirola eta generoak: nes-
kak eta mutilak zelan ulertzen daben
kirola" berbaldia. Kultur Etxean.

Abenduak 21, astelehena

17:00etan, zine tematikoa *Everest*.
Kultur Etxean.

Abenduak 22, martitzena

17:00etan, zine tematikoa *Peter Pan*
barria. Kultur Etxean.

17:00etan, Intxaur-saltsa tailerra.

Abenduak 24, eguena

12:00etan plazea apaindutea.
17:00etan, Olentzeroren etorrerea
plazan.

Abenduak 27, barikua

19:00etan, Josu Bergararen kontzer-
tua Kultur Etxean.

Abenduak 28, zapatua

17:00etan, zine tematikoa *Jurasic*



world kultur Etxean.

Abenduak 29, domeka

19:00etan, *Chamonix-Zermat eskie-
kin* proiektino eta berbaldia Jurek
Ziemkiewicz eta Aitor Arbulugaz.

Abenduak 30, astelehena

18:00etan, pala partiduak frontoian.

Abenduak 31, martitzena

11:00etan, "Atoan" I. San Silbestre-
karrera.

Zeberio

Abenduak 18, barikua

19:00etan, Iriren Lagunakaz kantuan
eta jantzan. Umeentzako ikuskizuna
Plazako ermitan.

Abenduak 19, zapatua

11:00etan, Gabonetako futbol parti-
dua.

Abenduak 21, astelehena

19:00etan, Arratiako Musika Eskolako
ikasleen entzunaldia eskola zaha-
rrean.

Abenduak 23, eguaztena

10:30etik **13:30**era eta **16:45**etik
19:45era ludotekea zabalik.

Abenduak 24, eguena

17:00etan Olentzeroren etorrerea.
Ermitabarrin hasi eta plazan amaituko
da.

Abenduak 26, zapatua

12:45ean, San Esteban Etxazo au-
zunean. Azkolariak, idi-probak eta
barauskarria.

Abenduak 27, domeka

19:30ean, zinea *Loreak* pelikula.
Plazako ermitan.

Abenduak 29, martitzena

10:00etan, Gabonetako Umeen Par-
kera.

12:00etan, Santo Tomas zaharra er-
mitan mezea eta barauskarria.

Abenduak 30, eguaztena

19:30ean, ardao dastaketea Batzo-
kian.

Abenduak 31, eguena

11:00etan, mendi urtekerea Tonto-
rrendira. Zubialdeko plazatik.

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIN ERDARAZ
Baimenak: A1, A, B1, B
Lehendakari Agirre 31
Telefono: 94 613 71 32
48140 IGORRE (BIZKAIA)
garantxe@euskalnet.net

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Palo Mendieta, s/n 48530 LEMOIA, Bizkaia
Tel: 000 480 830 000 009 200 717

Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

ARRATIAKO HISTORIA (I)

Ondarearen bidezko Arratiako historia bat (I)

Diman, Axlor legorreen hain zuzen, aurkitutako Neanderthal baten hazurrak dira orain arte doguzan aztarnarik zaharrenak; Historiaurreko Paleolito Erdian, Kultura Musterienseko ehiztari edo kazari trebeak izan ei ziran Neanderthalak, gorputza edo fisikoa indartsua eta egokia ebelako ehizan egiteko.

Angel Larrea Beobide

Historiaurrean be (Goi Paleolitoa) kokatu egiten dira Lemoako Arlanpe koba, Dimako Baltzolako kobak eta Jentilzubi: interes handiko espazio naturalak; izan be, aurkitu eta aztertu diran aztarna arkeologikoakaitik eta bertako faunagaitik. Gorbeialdean, bestalde, artzaintzaren sorrera izan zan Neolito garaian; ordukoak eta osteko Brontze Arokoak dira, besteak beste, topau diran hildakoen errautsak lurperatutako erabilten ziran trikuharriak, menhirrak, e.a. Historiaurrearen azken aldikoak (Burdin Aroa) eta Erromatar Inperioaren azken mendeetakoak doguz, hurrenez hurren, Ilunbeko hatxan (Dima) eta Elorriaga auzoan (Lemoa) aurkitu diran aztarnak; Lemoako hilarrietan (II-IV. mendeak) izen indigenak eta latindarrak agertu dira, eta sinboloen artean, izar irudiak be indigenak dira.

Goi Erdi Arokoak dira, ordea, VIII-XI. mendeetakoak zehatz-mehatz esanda, Arratiako bizileku honek: Santa Lutzia (Igorre), Zeanuri eta Zeberioko auzo batzuk, Elexabeiti (Artea) eta Lamindao (Dima). "In dei nomine ego / Mominu/s in

Gorbeialdean,
artzaintzaren sorrera
izan zan Neolito garaian;
ordukoak eta osteko
Brontze Arokoak dira,
besteak beste, topau
diran hildakoen errautsak
lurperatutako erabilten
ziran trikuharriak,
menhirrak, e.a.



Bediako Artabene baserria orain dala 30 urte inguru.

pace Xristi ic / dor/mit" (latinez idatzita, hauxe dino: Jainkoaren izenean, ni Mominus, hemen egiten dau lo [betirako], Kristoren bakean), Artean aurkitutako hilarri honen inskripzioa, antza, X. men-

de hasikerakoa da eta elementu geometrikoakaz dekorauta dago: koroia biribilak, triangeluak...

Erromaniko estiloa oso urri konserbetan da: Igorreko Santa Lutzia eta San Kristobal ermitearen sarre-

ran, esate baterako. Estilo gotikoa eta, batez be, gotiko berantiarraren presentzia ugariagoa da: Igorreko eleizearen sarreran; eta auzoetako ermitetan be (Dimako Bikarregin eta Indusin, edo Altzustako San



Hotel Areatza
★★★ Balneario
Olentzerotarako
oparia
topetan?

Aukeratu gure
Opari-bonoak

* Masajeak, Zirkuitu termalak,
Gastronomia bonoak,
Hidromasaje bainu bikotxak,
Estalgiak, Fisioterapia,
Hotela+bainuetxeko bonoak

28€tik aurrera

Informazioa eta erreserbak: info@hotelbalnearioareatza.com - 946572705

www.hotelbalnearioareatza.com

Zure ospakizunetarako menu bereziak.



Migel, Zeanurin) arku gotikoak ikusten dira sarreretan. Ondare artistiko ederra da Zeanuriko Andra Mari eleizearen erretaula nagusiaren bildumea, Ama Birjinaren irudi eta guzti (gotiko berantiarak, 1520ko hamarkadan eginak). Errenazentista estiloa 1530 urte-tik aurrera zabaldu zan Bizkaian: Areatzako San Bartolome eleizearen sarrera nagusia (portadea) da orduko artelanik onena Arratian (1580 urte ingurukoa).

Uribilduen sorrera

Arkitektura zibilaren kasuan, zera esan behar da: Behe Erdi Aroan, XIV. gizaldian hain zuzen be, sortu ziran Bizkaian azken uribilduak. Arratian, Areatza da kasu bakarra (1338 urtean). Kale orijinal bietan (Goikokalen eta Bekokalen) uriko etxe batzuen egiturak mantentzen dira: Bekokaleko, 1500 urte inguruko, etxe arkuduna hartu dogu haren lekukotzat. XVI. mendean be eregi zan Areatzako beste elementu interesgarri hau: "Etxe mudejar" deitutakoa. Beste aldetik, torretxeen arkitektura militarra dago. Torretxe hareek, funtzino militarra galdurik, etxebizitza bihurtu ziran (jauregiak, batzuetan; baserriak, bestetan) Erdi Aroaren amaieran, hau da, Gotiko estiloa indarrean egoan atzen hamarkadetan eta Errenazimentuaren garaian. Torretxe izandako hainbat eraikin doguz gure inguruan ikusgai; euren artean, Akeuri eta Altxibar (Zeanurin), Ugunaga (Areatzan), Ziarrusta eta Biteriñoko Etxeandi (Diman), Areiltza (Zeberion), Ugarte eta Gaztelu (Artean)... Arkitektura militarraz berba egin ezker, ezin dira itxi aitatu barik

leinu nagusiak: Abendaño eta Zumeltzu (Igorren), Elexabeitia (Artean), Urizar (Diman)... XVI. mendean zehar, bandoen gerrak amaiturik, jauntxoek torretxeak jauregi bihurtu eta, era berean, beste leinu batzuek be jauregiak eregi ebezan: Igorreko Urkizu auzoan, Abendaño jauntxo handien "Palazio" deitutako etxea; Zeanurin, Otzerin familiaren jauregia; Diman, Ibarra sendiaren etxea; Zeberion, Aldekoa eta abar.

Lehenengo baserriak, jauregiak eta ermitak

Ondare edo arkitektura etnografikoaren arloan sartuta, arkitektura herrikoa aitatu behar da eta, gure kasuan, paisajea moldatu dauan eraikina: baserria. Baserri zahar gitxi dagoz bizirik Arratia inguruan: beste batzuen artean, Zeanurin (Gallarte auzoan) eta Bedian (Artabene izenekoa). XV. mendearen amaieran hasi eta XVI. mendean zehar jarraitu eben orduko artisauek eta arotzak baserri sendoak haretzen egurrakaz altxetan. Baserrien ezaugarri arkitektoniko orijinalak, honeexek dira: teilatua ur bietara, fatxadearen beheko aldean ataria zabalik, ondoan, suetea erdiko sutondoagaz, salearen inguruan kuartuak edo logelak, fatxadearen goikaldea oholezkoa, eta etxearen atzekaldean kortea tolare eta guzti, sagardoa egiteko. Herrietako habitat tradizionala etxebizitza sakanatua oinarritu izan da, auzune eta auzoetan hain zuzen be, mendien maldetako zelaiguneak, paraje eguzkitsuak eta haizeetatik leku babestuak aprobetxatzen. Haretxeko "baserri posteduna" izango da, hurrengo urteetan (XVI.-XVII.

mendeak), jarraituko dauana eraikuntza herrikoaren protagonista nagusia izaten.

Heraldikan, Yurrebaso abizeneko sendiaren armarria dogu eredu: errenazentista estilokoa (klasizista) lurrebaso Bekoa baserriaren fatxadakoa (Igorre). Armarriak, beheko aldean daraman inskripzioan, 1611koa dala dinosku. Heraldika esparruko beste adibide bat, kasu honetan XVIII. mendekoa, Bidekolea Jauregian (Bedia) dogu: fatxada nagusia janzen dauan Gortazar sendi poderetsuaren armarri barrokoa.

Etxe kultuaren elementu bi hartuko doguz: bata, Areatzako Plazan dagoan Gortazar Jauregia; Beheko solairua (sarrerako puntu erdiko arku eta armarria) XVII. mendean

eregi zan; goikaldea, ordea, fatxadako pintura ederrak, barroko estiloaren barruan "rokoko"ak, XVIII. mendekoak dira; eta beste, Zeanuriko Uribe auzoko Axpe Jauregia, XVII. mendean egindako palazioa da: klasizista, eraikinaren ezker aldean; eta XVIII. gizaldikoa eta barrokoa, eskoiko aldea. Etxegintza herrikoaren kasuan, ataribako baserria dogu, XVII. mendean amaieran eta hurrengoaren hasieran eregi zana, batez be Lemoan eta Bedian; Zornotza aldean be sortu zan baserri eredu hau. Gainera, XVIII. mendearen lehen hamarkadetan egin zan Zulaibar Beaskoa baserri armarri-duna (Zeanuri), geroago ikusiko dogun "arratier" baserriaren eredu aurrendarizat hartzen da.

Heraldikan, Yurrebaso abizeneko sendiaren armarria dogu eredu



Arteko Elexabeitin topautako hilerria, egun Bilboko Arkeologia Museoa dago.

HERRIKO DENDAK HERRIKO JENDEARENAK

Iratxeren altzari-denda

Josebaren gimnasioa

Aitorren okindegia

Elsaren fruta-denda

Lauraen zapata-denda

Herriko dendak herriko jendearenak dira; jende langilea, lana sortu eta gure kaleak bizirik mantentzen dituena.

HERRIKO DENEK ZURE LAGUNTZA BEHAR DUTE, EZ HUTS EGIN

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y EMPLEO

ZIKLO-KROSA

Kevin Suarezek eta Aida Nuñok jantzi eben Igorreko Ziklo-kroseko txapela



Kevin Suarez helmugara heltzean.

Erredakzioa

Kevin Suarezek eta Aida Nuñok irabazi eben XXXIX. Igorreko Ziklo-

krosa. Kevin Suarez 23 urtez azpiko mailakoak irabazi eban lasterketea. Gizonezkoetan Elite Mailako irabazlea Aitor Hernandez izan zan helmugan bigarren sartuta. Andrazkoetan, Elite mailako Aida Nuñok errez irabazi eban lasterketea.

Igorren, Espainiako Kopako lasterketea jokatu zan eta, gizonezkoetan, irabazleak Aitor Hernandez Elite mailan, eta Felipe Orts 23 urtez azpikoen mailan izan ziran. Junior mailan, Feijoo da lider eta Valentziako lasterketan ebatziko da irabazlea. Master 30ean, Raul Ballesterrek irabazi

dau kopea, Master 40an Pablo Gomez doa lider baina azkenengo lasterketan ebatziko da, Master 50ean, irabazleak, Javier de la Fuentek ez eban parte hartu Igorren. Master 60en Borja Bergarechek eroan eban Kopa.

Andrazkoetan, Aida Nuñok Elite mailan eta Saioa Gilek kadeteetan irabazi dabe Espainiako Kopa.

Arratiarrak

Arratiarrai jagokienez, Julen Zubero eta Manu Quintanilla bederatzigarrenak heldu ziran helmugara Igorren, bakotxa bere kategorian.

Podiumak:

Elite gizonezkoak

- 1- Aitor Hernandez.
- 2- Ismael Esteban.
- 3- Javier Ruiz de Larrinaga.

Elite andrazkoak

- 1- Aida Nuño.
- 2- Lucia Gonzalez.
- 3- Merce Pacios.

23 urte arteko gizonezkoak

- 1- Kevin Suarez.
- 2- Felipe Orts.
- 3- Mario Junquera.

23 urte arteko andrazkoak

- 1- Alicia Gonzalez.
- 2- Alba Teruel.
- 3- Eider Merino.

Junior gizonezkoak

- 1- Jokin Alberdi.
- 2- Richard Brun.
- 3- Xabier Murias.

Junior andrazkoak

- 1- Irene Trabazo.
- 2- Sofia Rodriguez.
- 3- Isabel Martin.

Kadeteak gizonezkoak

- 1- Gonzalo Inguanzo.
- 2- Jon Calvo.
- 3- Xabier Llamosas.

Kadeteak andrazkoak

- 1- Saioa Gil.
- 2- Alba Gomez.
- 3- Monica Varas.

Master 30 gizonezkoak

- 1- Raul Ballester.
- 2- Israel Chica.
- 3- Jose Domingo Cadavieco.

Master 40 gizonezkoak

- 1- Pablo Gomez.
- 2- Jose Vicioso.
- 3- Xabier Mendaraz.

Master 50 gizonezkoak

- 1- Jose Lorenzo Esteban.
- 2- Aitor Zabaleta.
- 3- Arsenio Gonzalez.

Master 60 gizonezkoak

- 1- Borja Bergareche.
- 2- Pedro Mugica.
- 3- Jesus Mari Alzola.

MENDIA

Alex Txikon Nanga Parbat-eko tontorra egiten saiatuko da neguan

Erredakzioa

Alex Txikon Nanga Parbat-era (8.126 m.) itzultzeko asmoa dauka, "igaz egindako lana hobetuteko". Beragaz batera Ali "Sadpara" eta Daniele Nardi igazko espedizionideak egongo dira. Janusz Golab eta Ferran Latorre be egongo dira Txikonen taldean.

Pakistanera abenduaren amaieran abiatuko dira. Nanga Parbateko tontorrera inor ez da heldu neguan. Alex Txikon eta bere taldea Diamir aldeko Kinshoferren ibilbidetik saiatuko dira erronka hori gainditzen.



Alex Txikon.

Manu Quintanilla igorretarrak Bizkaiko txapela jantzi dau hirugarrenez

Zemendiaren 28an jokatu zan Berrizen Bizkaiko Txapelketea eta Manu Quintanilla igorretarrak jantzi eban Bizkaiko Txapela Master 40 kategorian. Hirugarren sartu zan helmugan, baina hori nahikoa izan eban Bizkaiko Txapela hirugarrenez janzteko.

Mikel Epalza txapeldunorde izan zan Master 30ean. Kategoriatan, lehenengo hamarren artean Dimako Tiritu taldeko ziklo-krosleri bi sartu ziran: Jon Aingeru Artetxe, bosgarren, eta Jon Garaita bederatzigarren.

Elite Mailan Julen Zubero izan zan hirugarren bizkaitarra.



BKT

Mendi Kirol Ligako saioa Diman

Erredakzioa

Abenduaren 27an, Diman Bizkaiko Kopa Trail (BKT) jokatuko da, hau da, Mendi Kirol Ligako saioa. Saio bakotxean partaideak galapan (trail), bizikletan (MTB) eta txakur krosa egiten dabe. Proba honeek puntuagarriak dira. Martxea eta txiki trail bat be egoten dira puntuagarriak izan ez arren. Modalidade bakotxean, partaideak 10 eta 20 km. artean egin behar dabe. Zortzi etapa dagoz Mendi Kirol Ligan eta azkena Diman izango da. Bizkaiko Foru Aldundiak eta Dimako Udalak antolatu dabe eta Stop Sanfilippo Fundazioari lagunduten deutso BKTak.

Etapa bakotxa amaitukeran, opariak eta esku dirua zozketatuten dira partaideen artean. Eta BKTaren hiru kategorietako irabazleak (gizonezkoetan, andrazkoetan eta taldeak) garaikurra eta diru saria jasoko dabe.

Berdea marroian erabili

Erosketetarako Poltsa Konpostagarriak

Abendutik aurrera, Arratiako dendetan, erosketetarako poltsa konpostagarriak emongo ditue dohainik.



Kolore berdeari esker ezagutuko dituzu, eta edukiontzi marroian erabili ahal izango dira.

Edukiontzi marroirako izena emon daben personek **landare-hondakinak** botateko erabili ahal izango ditue, eta oraindino izena emon ez dabenek Udalera edo Mankomunitatera jo ahal izango dabe, zerbitzuan izena

emoteko; bertan, beharrezko material guztia emongo jake, **DOHAINIK:** ontzia, poltsa konpostagarriak, edukiontzi marroia zabaltzeko giltza eta bertan itxi leitekezan hondakinei buruzko azalpen-liburuxka.

INFORMAZINO GEHIAGO: **94 631 17 17**



ESKALADEA


Itziar Zabala Txapeldun

Irati Urien

Espainiako Eskalada Kopa irabazi dau Itziar Zabalak. Hasikera baten ez eban irabazterik espero Dimako gazteak, baina pozik dago garaipen zein aurtengo emoitza. Martia inguruan hasi zan Kopa eta abenduaren 6an amaitu, Granadan. Txapelketak nahiko separauta egon dira datai jago kienean eta horrek, entrenetako denpora gehiago emoten badau be astun egin jakola aitortu dau

dimoztarrak. Bestalde, lehiakideen nibela eta bideen kalidatea aitatu gura izan dau irabazleak, "gure artean nibela asko igon da eta hori oso barri ona da motibautu entrenetan segiduteko. Bideen kalidatea be oso ona da".

Dimako gaztea Piugaz Bilbao rokodromoan entrenetan dabil Gianni Faggiana entrenadore daukala eta orain, txapelketa internazionalen bat egiteko esperantzeagaz martira arte entrenetan segidutea da bere asmoa.



Itziar Zabala.

Bitarte horretan harrian eskaletan ibili gura dauala kontau deutso BEGITURI Itziar Zabalak, txapelketak denporea eskas eukiten dauala eta.

HERRI KIROLAK

Areatza-Zeanuri herri-kirol desafioa Zeanurin hilaren 26an

Erredakzioa

Areatza eta Zeanuri herrien artean beti egon da lehia eta herri bietako kuadrila bik herri-kirol desafioa bihurtutea ebatzi eben. Aurten, desafioaren V. edizioa jokatu da abenduaren 26 Zeanuriko frontoian. Aurreko urteetan Zeanuriko auzo artekoa izan da, aurten barriz, herri bien artekoa. Arrastiko seiretan hasita, herri-kiroletan, txokor

batzean, txinga eroaten, zaku lasterketan, trontzan, azkora eta sokatiran neurtuko dira billaroztarrak eta zeanuriztarrak.

Urtero legez, lehia jai giro ederean egingo da. Jaialdiari Zeanuriko jantzariak emongo deusie hasikerea eta amaitutakoan afaria egongo da. Ondoren, erromeria Jokaldi taldeagaz. Han, desafioan parte hartu dabenak eta herri bietako lagunak batuko dira.

PELOTEA

"Dimeko Gabonetako I. Txapelketa" antolatu dabe

Irati Urien

Gabonetarako Pelota Txapelketa antolatu dau Txumulueta Pelota Elkartek. Txapelketeak finalerdial final egiturea eukiko dau eta kadete, jubeni eta nagusi mailatan jokatu da. Lehenengo jardunaldia abenduaren 26an izango da, urtailaren 2an bigarrena eta final urtailaren 5ean jokatu dira. Antolatzaileak maila oneko txapelketa espero dabe, Bizkaiko "onenak" ikusteko aukerea egongo da. Dimako eta orokorrean Arratiako pelotariak ez dira faltauko; izan be, inguruko pelotea indartu eta gazteengana hurreratutea gura dabe Txumulueta elkartek. Txapelketeagaz batera baina, nesken pelota eta pala partiduak be tartekatut dabez

egitarauan. Larrabetzuko Txokoan Emakume Pelotarien Elkarteko pelotariak eta Zeanuriko Joko Alai klubeko palariak etorriko dira. Euskerea eta bardintasuna lagun, hiru egunez herriko pelotalekua beteteko asmoa daukie dimoztarrak. Egun horreetan giroa berotuteko bertolariak egongo dira frontoian bertan, eta errifea be aterako da jardunaldi bakotxean. Antolatzaileak eskerrak emon gura izan deusiez Dimako Udalararen euren proiektuan sinistu eta laguntzearren.

Abenduak 26, eguna

17:00etan semifinallak Dimako frontoian. Kadeteak: Ioritz Prieto (Dima)-Erkiaga (Zeanuri) vs Oluaguenaga (Durango)-Lazkano (Zornotza). Jubeniak: Kimetz Zapiko

(Dima)-Artola (Galdakao) vs Lizundia (Zornotza)-Goiria (Zornotza). Nesken eskuzko partidua (Txokoan Emakume Pelotarien Elkartea): Nerea Sagarna-Ainhoa Alaiagoikoa vs Jone Goiri-Alaia Sanz. Senior: Joseba Etxebarria (Dima)-Etxebarria (Lemoa) vs Elezkano (Galdakao)-Hernandez (Galdakao).

Urtailak 2, zapatua

17:00etan semifinallak Dimako frontoian. Kadeteak: Etxeita (Zeanuri)-Ekain Garaizar (Dima) vs Atutxa (Zornotza)-Ruiz (Usansolo). Jubeniak: Aurrekoetxea (Lemoa)-Lur Ziarrusta (Dima) vs Karregal (Galdakao)-Muruaga (Munitibar). Neskak palea: Irati Artaraz-Leire Trueba vs Itxaso Aginaga-Araitz Zapiko. Senior: Ekhi Ziarrusta (Dima)-Aspuru (Abadiño) vs Mendia (Zeanuri)-Kantxo (Galdakao).

Urtailak 5, martitena

17:00etan kategoria bakotxeko finalak jokatu dira Dimako frontoian. Bertolariak be egongo dira.

HERRI KIROLAK

Aitzol Atutxa Urrezko Aizkolarien Kopako finalean izango da

Erredakzioa

Aitzol Atutxak errez irabazi eutsan Ruben Saralegiri abenduaren 5ean Diman jokatuak finalerdian. Dimoztarra zan faboritua, ez etxean egoalako, Euskal Herriko eta Urrezko Aizkorako txapelduna dalako baino.

Atutxak eta Saralegik hamalauna kana-erdiko ebagi behar izan ebezan. Lehenengoa arinago ebagi eban Saralegik baina bigarrean aurrea hartu eutsan dimoztarrak. Atutxak 34 minutu eta 15 segundu behar izan ebazan enbor guztiak ebagiteko; bere aurkariak, barriz, 37 minutu eta 8 segundu.

Hiru finalista

Urrezko Aizkolarien Kopako finalean hiru aizkolarik neurtuko dira. Lehenengo finalerdian Aitzol Atutxak lortu eban pasea; bigarre-

nean Azurmendi sailkatu zan eta hirugarrenean Joseba Otaegi izan zan irabazlea. Finala urteko atzen egunean izango da Asteasuko frontoian eta Urrezko Harri-jasotzaileen finala be bertan izango da.

Ingude, lasto altzatze eta trontza erakustaldiak

Azkora Txapelketako ekitaldian, Dimako herri-kirolariak ingude, lasto altzatze eta trontza erakustaldiak egin ebezan. Haizea Ziarrustak eta Karmele Gisasolak egin eben ingude erakustaldia: minutu baten 65 eta 60 jasoaldi egin eben hurrengo hurrengo. Jon Loiola, Jose Mari Atutxa eta Tubi ibili ziran lasto altzatzen. Minutu eta erdi baten 15 altzaldi egin ebazan Atutxak, 17 Loiolak eta 19 Tubik. Atzenik, trontzan neurtu ziran Aitor Loiola eta Jon Loiola, Jose Mari Atutxa eta Tubiren kontra. Loiola anaiak irabazi eben.

ZORIONAK
ETA URTE
BARRI ON!!!!

#igorrenerosi

ARRATIako MERKATARIEN ELKARTEA
www.ame.eus

PERTSONA HELBURIA
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE ECONOMIA
INDUSTRIA Y COMERCIO

BERBALDIA

"Nazionalismoak andren eskuetan itxi eban euskerearen zabalkunde eta erabilpena"

Jone Miren Hernandez EHUko Gizarte Antropologia irakaslearen arabera, euskerearen zabaltze eta erabiltearen ardura andreena izan da atzen gizaldiotan: nazionalismoak euskerearen ardura andren eskuetan itxi eban; ikastolen mobimentuan be andrak izan ziran protagonista, eta gaur egun be, euskerearen transmisioan batez be andren kezka izaten jarraituten dau.

Erredakzioa

Jone Miren Hernandez Euskerearen Egunean egon zan Zeanurin. Euskaldunbarriai egin jakie omenaldia aurten Euskerearen Egunean. "Zein da euskaldunbarria? Araban, euskaltegiatan dagozanen artean % 70 andrak dira" eta euskerearen transmisioan dagoan interesa batez be andrena da EHUko irakaslearen arabera. Bertan egoan publikoa be horren erakusgarri zan; izan be, publikoan % 100 andrak ziran.

Euskerea eta nazionalismoa

Euskerearen legea 1982koa izan arren, euskerearen aldeko kezka soziala askoz lehenagokoa dala dino Hernandezek, gitxienez gizaldi bat atzera egin behar dala. Hernandezen ikerketen arabera, kezka soziala XX. mendearen hasieran hasi zan

indartzen. Orduan sortu ziran Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia eta hainbat erakunde euskera bultzatzeko. Erakundeotan gehienak gizonetakoak ziran baina sasoi haretan indarrean egoan nazionalismoak andrai emoten eutsan euskera transmitiduteko ardura. Nazionalismoa XIX. gizaldiaren erdikaldera hasi zan. Sabino Aranaren ustez, andrak inportanteak ziran "errazea" mantenduteko. Hasieran "errazan" ipini eban arreta nazionalismoak, eta gero hizkuntzan. Nazionalismoak andren betebeharrak zehaztu ebazan eta euskera bultzatzeko erakundeak sortu ziranerako, andren papela definituta egoan.

Miren Llona historialariaren arabera, 1920ko hamarkadan bereizketa bat sortu zan. Andren eskuetan "ekintza patriotikoa" geratu zan eta gizonen eskuetan "ekintza



Jone Miren Hernandez berbaldian.

politikoa". Ekintza patriotikoaren barruan, karidadea, erlijioagaz lotutako hainbat gauza (katekesia euskeraz emotea, esate baterako) eta euskera egozan. Hernandezen arabera, "orduan, be baegoan Hizkuntz Politika bat: andren eskuetan itxi zan euskerea".

Emakume Abertzale Batza (EAB) 1922an sortu zan andrak EAJ partiduko bazkide ezin ziralako izan. EAB oso mobimentu zabala izan zan eta momentu baten 30.000 andra egoan ziran bertan. Euren lanen artean mitinak emotea egoan eta kontraesan bat dago

euren diskurso konserbadorea eta euren praktikearen aldetik. Izan be, euskerea eta nazionalismoa defendatzeko diskurso tradizionala erabilten eben, baina praktikan arlo publikoan jarduten eben mitinak emoten eta artikulua idazten. Jardun publikoa eta apurtzailea zan eurena.

Andereñoen mobimentua

1936ko Gerra eta ondorengo Frantziako EAB desagertu egin zan erakunde lez, baina han sortutako sareak ez ziran desagertu. 1945-46 aldera, Elbira Zipitriak lehenengo eskolea euskeraz sortu eban eta bere eredu azkar zabaldu zan. Horretarako lehenik egozan EABko sareak aktibau ziran.

Ikastolen inguruko mobimentuan barriro be andrak izango dira protagonista: andereñoak, hain zuzen. Euskal Eskolearen proiektua andren eskuetan egoan zan.

Gero, Hezkuntza Sistema ulertzeko modua aldatu egin zan eta "kutsu politikoa eta ekonomikoa" hartu eban. Gizonak seminariotik urteten hasi ziran eta eskolara irakasle joaten.

Ikerlari batzuek, "andereñoen mobimentua" aldarrikatzen dabe. "Ez gara gai izan mobimentu lez, ikusteko. Atzenengo urteetan aitorzak egin jakiez andereñoai, baina aitorza ez da nahikoa. Ez dogu asmatu esperientzia eta jakintza hori jasoten eta balioan ipinten" dino Hernandezek.

LASARTE ARETOA

Lasarte Aretoko lagun egitea merkeagoa da Gabonetan**Erredakzioa**

Igorreko Kultur Etxeak, Lasarte Aretoko lagun txartel barriak egin edo 2015ekoak eguneratuko ditu abenduaren 15etik urtailaren 8ra arte bost euroko deskontuagaz.

Txartelagaz ikuskizun guztietan % 25eko deskontua izaten da, eta zuzeneko ikuskizun bat eta lau pelikula debalde izaten dira. Des-

kontuak ez dira bakarrik Igorreko Lasarte Aretorako, Euskal Antzoki Sareako antzoki guztietarako baino.



MEMORIA HISTORIKOA

Memoria lurpetik atera guran**Irati Urien**

Gerra Zibilean ehundaka izan ziran Arraldeko (Gorbeia) frentean hildakoak. Esaten dabenez asturiar brigadakoak izan ziran gehienak. Orain dala urte batzuk hildako asturiar baten familiakoak kontaktuan ipini ziran orduko Ubideko Udalagaz, atzenengoz Ubidetik euki ebela eta bere barri. Gauzak holan eta denporeari au-

rerra egiten itxi gura barik, Ubideko herritar batzuk Arralden egoan zan frentearen inguruan ikertuten hasi dira. Momentuz herritar batzuk egin dabe berba euren testigantzak batu, eta nondik tiritu jakiteko. Ubideztar batek kontau deusienez hildakoak ehundik gora izan ziran eta zulo batean sartu ebazan. Hori jakinda, espeleologo talde baten laguntzeagaz ikertuteari ekin eutsien, Arraldeko

bi zulutara sartu eta aztertu ebazan orain dala gitxi. Kontutan hartuta garai haretako jente gehiena ez dala bizi, gatz ikusten dabe baliagarri leiten informazio gehiago bildutea baina aurrera jarraituteko asmoa daukie; horregaitik, "baten batek zeozertxo jakin ezker, Ubideko Udalaren bitartez gugaz hartu-emonetan ipini daitezala" eskatuten dabe eta "asko eskertuko dogu" dinoe.

MERKA LABELA-HARATEGIA

Etxeko produktioak:

- Txerizoiak
- Otoloizoiak
- Buskantzak
- Salzitubak
- Hamburgesak

Arratiako produktioak:

- Baserriko atxila
- Urtsiak
- Baserriko arrautzak
- Txerriak
- Harriak
- Geroak (jate eta barazkiak)

Herrikoak lekuetan
Uhartekoak Agirre 21
94 479 61 19 www.herrikoak.com

Bizkaifisios SLk
bi zentro ditu

Fisioterapia Zentroa Igorre

Ellexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08

Andra Mari Klinika

Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1, Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64

www.bizkaifisios.com

Tel. 94 637 60 08 • email: info@arrotz.com

ARROTZ

Landegian O Jabetzen!

Arrotz S.L. - Ibañeta, 10 - 48940 - Leizor

FISIK

FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA

Tel. 94 685 11 16

LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

RUGBY TABERNA

•Egin zaitetz bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

ARRATIAR SAREAK

arratiko.zekorrak@gmail.com

http://santxisme.blogspot.com/

arratiako instalazioak s.l.

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

KONTZERTUAK

Urte amaierako kontzertuak

Erredakzioa

Billaroztarrak ohituta dagoz Vienan legez, urteari agur esaten Johann Straussen Radetzky martxeagaz. Areatzako Banda ez da Vienako Filarmonikea baina arrakasta handiko kontzertua jotzen dau urtero abenduaren 30ean Areatzako eleizan. Aurten eleizea obretan dago eta Areatzako Bandak ezingo dau bertan jo urte amaierako kontzertua. Hori dala eta, frontoian izango da hitzordua. Eguna eta ordua ez dira aldatuko eta urtero moduan abenduaren 30ean, zazpi t'erdietan izango da. Han, Musika Eskolako gazteak lagunduta, betiko antzeko errepertorioa joko

dabe.

Hilaren 18an, arrastiko zazpiretan Gabonetako kontzertua Lemoan izango da. Lemoako Korallak eta Arratiako Musika Eskoleak antolatuta, abesbatzak jentearen abotsak daukan musika sortzeako gaitasuna erakutsiko dabe barrero be. Lemoako Abesbatzen Elkartek, Arratiako Musika Eskoleak eta Erandioko Abesbatzak hartuko dabe parte kontzertu honetan.

Arratiako hiru abesbatzak eskeinitiko dabe Igorreko Gabonetako kontzertua. Abenduaren 19an izango da, Kultur Etxean, zortziretan. Luis Iruarizaga Abesbatza, Lemoako Abesbatza eta Zeanuriko Abesbatza izango dira bertan.

Arratiako Musika Eskoleak hilaren 16an Gabonetako kontzertu bi joko dauz: Zeanuriko Kultur

Etxean bata 18:30ean eta Bendiako eleizan bestea, 19:00etan. Hurrengo egunean, Igorreko La-

sarte Aretan joko dabe Musika Eskolakoak zazpiretan eta hilaren 21ean, gitarra ikasleak kontzertua emongo dabe Lemoako Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

Zeberion be Gabonetako kontzertua, Musika Eskolako eskutik izango da abenduaren 21ean, eskola zaharrean.

Areatza eta Bilboko Bandak

Areatzako Banda entzuteko Areatzako ez da aukera bakarra. Izan be, urtailaren 2an, beste kontzertu bat joko dau Igorreko Lasarte Aretan arrastiko zazpiretan. Urte amaieran Areatzan legez, Erregetako kontzertua Igorren jotzen dau urtero Areatzako Bandak.

Bilboko Udal Bandak Euskalduna Jauregian eskeintzen dauan kontzertura joateko autobusa antolatu dau AKKBk. Autobusak abenduaren 20an, goizeko 10:30ean Areatzatik urtego dau.



DUNBA

Zeanuriko auzoak

Zeanuriko eskolako ikasleak

Ondorengo lerroetan Zeanuriko auzoak aurkeztuko deusueguz.

Zeanurin bederlatzi auzo dagoz eta honeek dira euren izenak:

Altzusta, Uribe, Undurruga, Asterria, Altzuaga, Ipiñaburu, Ibarguen, Otzerinmendi eta Ibarreta (herriko plaza).

Ondoren auzo bakotxaren kokapena, ospatzen diran jaiak, bertatik ikusten diran bistak eta auzo bakotxaren deskribapen txiki bat irakurriko dozue.

Altzusta Zeanuriko auzo handi bat da, eta biztanle asko ditu. Alzustako jaiak urri lehenengoaren 29an dira, baina zapatuetan ospatzen dira eta boloetara San Migeleko ermitan jokatu da. Bola jokoa amaitu eta gero txokoaren kanpokaldean txupinazoa egiten da.

Orain dala berrogei urte, gitxi gorabehera, Alzustako txokoa eta frontoia eskola bat ziran eta Alzustako ume guztiak bertara joaten ziran. Alzustan ermita bi dagoz: San Migel eta Santa Lutzi. Hotel bat be bai, nekazal turismoa, eta autobus geralekua dago. Hotela Ellaurin dago eta Kilo Terdi deitzen da, nekazal turismoa Kallarten dago eta autobus geralekua barriz, Ventan.

Alzustan auzo honek daude: Venta, Arraldi, Sagarmina, Santa Lutzi, Ellauri, Kallarte, Txantokalle, Beretxikorta, Telleria eta Eskinekoetxe.

Arregia plazaren ondoan dago. Jubiladuak eta Loli Leire denda

Arregia barruan dagoz. Etxe guztiak baserriak dira. Gorantza ludotekea dago eta bertan jolasten gara. Gaietan gazteak egoten dira Gaztelekua dagoalako. Ludotekearen ondoan medikuaren etxea dago. Arregian ospatzen diran jaiak sanblasak dira.

Albakoia, eskola bideko auzoa da. Albakoian 5 edo 6 etxe dagoz. Eskolea, bertan sartzean da. Albakoian, Arregian legez, sanblasak ospatzen dira. Albakoia eta Arregia Ibargueneko auzoan sartzean dira.

Ibarreta auzoa plazaren ondoan dago. Ibarretak "U" formea dauka. Bertako frontoian, esku pelotan, palan, raketetan eta futboleant jokatu ahal da. Ibarreta ondotik errekea doa eta alboan dagoan landa handi baten tirolina ipini eben Gorbeia Suzien izan zanean. Ibarretan hiru solairuko etxeak dagoz eta iturri txiki bat dago zubi ondoan.

Orue, Soloeta eta Landagutxiren artean dagoan auzo bat da. Auzoa zortzi ethez osotuta dago eta etxeak baserri formea daukie. Orueko eta inguruko auzoetako jaiak sanblasak dira. Astegoienetan auzoko bertako umeak umeentzako jolasak antolatzen ditue: bizikleten pista, gaztainak batu...

Soloeta Elizondotik gora dago. Auzoak bost etxe ditu gitxi gorabehera. Auzo hila da, hamar persona bizi dira eta ez dago jairik. Animalia asko dagoz, landa bitan zaldiak, behiak eta ardiak. Solo handi bi dagoz eta negutegi bat. Negutegian ahuntzak, behiak



Landagutxi auzoa.



Ortuzar auzoa.

eta ardiak dagoz. Soloetan lekak, tomateak, zerbak eta abar landatzen dira. Soloetatik Zeanuri guztia ikusten da baita Gorbeia be. Beherago eskolea dago.

Ipiñaburu eta Ipiña be Zeanuriko auzoak dira. Hotel bat dago eta bertan jente asko ezkontzen da. Euskal Herriko gaztai onena bertan egiten da, sari asko irabaziz. Jaiak zezeilean eta abuztuan izaten dira.

Zeanuritik Barazarrerantz joanda saihesbide bat dago, handik Undurragan sartzean zara edo baita presatik be. Zeanuritik 2 km.tara dago.

Ondoa auzo bi dagoz: Ipiñaburu eta Altzua. Orain dala asko etxeak bota eta preseaa egin eben. Presea handia da. Eskolea, harategia, taberna, errotea eta abar egozan. Undurruga zati bitan banatzen da: Undurruga eta Undurruga goikoa. San Pablo eta San Pedro ermita Undurruga goikoan dagoz. San Pablo eta San Pedroko jaiak bagilaren 30ean dira eta egun bi irauten dabe. Futbol zelai handia dauka eta han Zeanuriko Auzoan Futbol Txapelketa ospatzen da.

Uribe, Zeanuri eta Areatza artean dagoan auzoa da. Hiru ermita dagoz. San Urban, San Migel eta



San Lontzo. Sanlontzoak egun bitan dira eta Bola Txapelketa egiten da. Irabazten dauanak kopa bat eroaten dau etxera. Azkenengo egunean urdaia eta txokolatea egoten da.

Sanmigelak hiru egun dira: Apo Txapelketa egoten da eta Bizikleta Txapelketa be bai. Azkenengo egunean urdaia eta txokolatea egoten da. San Urban egun bat da eta meza ondoren gailetak eta mostoa egoten dira.

Asterria Zeanuriko plazatik 3 kilometrorra dago. Asterrian ermita bat dago, ermitearen izena San Andres da. Asterriako jaiak zemendiaren 30ean ospatzen dira. Ermita Ogaragoti auzoan dago. Asterrian, auzo honek dagoz: Emaldi, Ogaragoti, Bekotxeta, Kanpana, Etxauri, Akurizar, Landaburu, Barazar... Handik hur Urrekoatxa dago.

Altzuaga Undurragatik gora joan eta aurkitzen dozun auzoa da, etxe gitxi osotutako auzo bat da. Altzuagatik Gorbeiko kurutzea ederto ikusten da.

Auzo horretan ospatzen diran jaiak San Juan suak dira, jaiak ospatzeko su handi bat egiten da, eta personak salto egiten dabe gailetik.

Argi dago Zeanurin auzo eta ermiten faltan ez gagozala, eta eurak ezetuteko erdu urrietan ermiten ibilbidea egiten eta bide batez auzoak ezetuten.

AGENDEA

ABENDUAK 15
DIMA

17:00etan, gizonezkoentzako tailerra "Gizonak eta bardintasuna. Aurrerapausuak eta erronkak". Gaztebean.

ABENDUAK 16
AREATZA

18:00etan, Bilboko Udal Bandaren kontzerturako izen emotea.

19:30etik 20:30era, 2016an federatzeko Lamino Mendi Taldeagaz udaletxeko 3. solairuan.

BEDIA

19:00etan, Musika Eskolaren kontzertua eleizan.

IGORRE

18:30ean, Olentzero batzar irekia. Kultur Etxean.

ZEANURI

18:30ean, Musika Eskolako kontzertua Kultur Etxean.

ABENDUAK 17

IGORRE

19:00etan, Arratiako Musika Eskolako Gabonetako kontzertua Lasarte Aretoan.

19:30ean, EH Bilduren berbaldia Kultur Etxean. Maribi Ugarteburu eta Jon Inarritu.

ABENDUAK 18

IGORRE

20:00etan, Nagusientzako antzerkia. Rude Teatrotan Arte antzezlan. Lasarte Aretoan.

LEMOA

19:00etan, Lemoako Koralk eta Arratiako Musika Eskolak antolatuta, Gabonetako kontzertua Andra Mari Eleizan.

ZEANURI

19:00etan, "Kirola eta generoak: neskak eta mutilak zelan ulertzen daben kirola" berbaldia. Kultur Etxean.

ZEBERIO

19:00etan, Irrien Lagunakaz kantuan eta jantzan. Umeentzako ikuskizuna Plazako ermitan.

ABENDUAK 19

AREATZA

09:00etan, Lamino Mendi Taldeak Basauriko Baskonia Mendi Taldeagaz batera antolatuta,

Mendiaganako buzoi barria ipini. Eleiz portal aurrean. Parkebeak antolatuta urte amaierako Gorbeira igoera.

20:00etan, Soul meeting The Quiet Corner-en.

DIMA

"Beinke! Guk be in geinke" jaialdi solidarioa frontoian. 17:15ean, Gazte Bari jantza taldea; 17:30ean, Irrien Lagunak-en *Ane Pirata*; 19:00etan, ikuskizuna; 21:30ean afaria.

IGORRE

18:00etan, Arantzarteren jantza saioa Lasarte Aretoan; 18:00etan, pelota partiduak. Eskola umeak eta partidu profesionalak. Eskupilota Taldeak antolatuta. Kiroldegian; 20:00etan, kontzertua. Luis Iruarizaga Abesbatza, Lemoako Abesbatza eta Zeanuriko Abesbatza Lasarte Aretoan.

LEMOA

19:30ean, Gibelurdinek girotuta poteo musikatua Kodigoa tabernatik hasita.

UBIDE

16:00etan, heriko plazatik mendira gutuna eroatera; 17:30ean, txotxongiloak *Ongi etorri Olentzero*, ondoren gaztainak eta txokolatea; 18:00etatik 20:00etara, Gabonetako Azokea. Elikagaien bankurako janari bilketea.

ZEANURI

16:45ean, Arratiako eleizak antolatuta, San Isidron



Umeentzako berba bako ikuskizuna

Igorreko Kultur Etxeko Lasarte Aretoan, abenduaren 27an arrastiko seiretan, 5 urtetik gorako umeentzat, Escena Creativa taldeak *Faboo* izeneko testu bako ikuskizuna taularatuko dau.

Faboo adierazkortasunean eta sinpletasunean oinarritutako ikuskizun bisuala da eta ume eta nagusien sormena biztea dauka helburu. Keinu eta soinu bidezko hizkuntza unibersala erabilten dau. Ekoizpen ezohikoa, barrizaillea eta edozein edadetako ikusleak gozatutako modukoa da.

janari bilketea Harribide Fundazioaren alde. Harribide Fundazioak egoera administratibo irregularrean dagozan etorkin gazteak egiten deute harrerea. Helburua Bizkaian 500 kilo jateko batzea da. Ondoren plazatik parrokiara "karabana"; eleizkizuna eta txokolatea frontoian. Bediako gazteak eskulanak salduko dabez Peruko Alto Trujilloko Fe y Alegria eskolearen alde.

ABENDUAK 20

BEDIA

11:00etatik 14:00etara, Bediako parrokiak antolatuta, Alkartasun dendea. Peruko Alto Trujilloko Fe y Alegria eskolearen alde katekesiko umeak egindako eskulanak plazan.

LEMOA

Ganzabalek antolatuta, goizeko ibilaldia Arratiatik.

ABENDUAK 21

AREATZA

19:30etik 20:30era, 2016an federatzeko Lamino Mendi Taldeagaz udaletxeko 3. solairuan.

LEMOA

17:30ean, Musika Eskolako gitara ikasleen emonaldia Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

ZEBERIO

19:00etan, Arratiako Musika Eskolako ikasleen entzunaldia eskola zaharrean.

ABENDUAK 22

DIMA

17:30ean, *Margo ipuinak* liburutegian.

ABENDUAK 23

ZEBERIO

10:30etik 13:30era eta 16:45etik 19:45era ludotekea zabalik.

ABENDUAK 24
ARRATIA

Olentzero. Ikusi egitarauak 5. eta 6. orrialdeetan.

ABENDUAK 25
LEMOA

Ganzabal Mendi Taldea Anbotora (1331 m.).

ABENDUAK 26
ARTEA

18:00etan, gaueko orientazio lasterketea, edade guztiakentzat. Plazatik urtenda. Ondoren txiki-buruntzia. 19:30ean, Gabon kantak plazan.

IGORRE

20:00etan, Zeani Antzerki Taldeak *37 bentanea 38 pasilloa* antzeztuko dau. Ondoren AMEK antolatuta Gabonetako 3 otzararen zoketea. Lasarte Aretoan; 22:00etan, Gaueko Zumbatoia eskolako aterpean.

LEMOA

19:30ean, bertso-poteo musikatua. Arkaitz Estiballes eta Jone Uria bertsolariak eta Oxabiren lagunak. Kresala tabernatik hasita.

ZEANURI

18:00etan, Areatza-Zeanuri herri-kirol desafioa. Frontoian.

ZEBERIO

12:45ean, San Esteban Etxazo auzunean. Azkolariak, idi-probak eta barauskarria.

ABENDUAK 27

DIMA

11:00etan, Bizkaiko Kopa Trail Mendi Kirol liga saioa. 12:30ean, "Harriak mugitzen Diman" presoan eskubideen aldeko ekitaldia. Plazan.

LEMOA

19:00etan, dokumentala *Bisaik, jauziaren aurpegiak*. Karbie Gaztebean.

ZEANURI

19:00etan, Josu Bergara. Kontzertua Kultur Etxean.

ZEBERIO

19:30ean, zinea *Loreak* Plazako ermitan.

ABENDUAK 28

IGORRE

17:00etan, Jostailu Azokea. Zazparrak, Maratu gazteak eta Eizu Kiñuren eskutik. Lasarte parkean; 20:00etan, antzerkia nagusientzat, Yllana taldeak *Chefs* lana antzeztuko dau Lasarte Aretoan.

ZEANURI

17:00etan, zinea *Jurassic world* Kultur Etxean.

ABENDUAK 29
ARANTZAZU

10:00etan, puzgarriak; 12:00etan, Asier Kidam magoa Kulturgunean; 16:00etatik 18:00etara, Zazparrak-ek antolatuta, puzgarriak eta jolasak.

BEDIA

10:30etik 13:30era ludotekea zabalik.

IGORRE

18:00etan, Ines Bengoa ipuin kontalaria Udal Liburutegian.

ZEBERIO

12:00etan, Santo Tomas zaharra ermitan mezea eta barauskarria.

ABENDUAK 30

BEDIA

11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara, Gabonetako Parkea frontoian.

IGORRE

20:00etan, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Alberto Inurategiren berbaldia "Porrotaren alde". Lasarte Aretoan.

ZEANURI

18:00etan, pala partiduak frontoian.

ZEBERIO

19:30ean, ardao dastaketea Batzokian.

ABENDUAK 31

AREATZA

09:00etan, Lamino Mendi Taldeak antolatuta, urte amaierako mendi urtekera Siskino eta Oketara.

IGORRE

VII. San Silbestre lasterketea. Mozorrotuta. 11:00etan izen emotea; 11:30ean hasiketea.

LEMOA

12:00etan, Truke Azokea arkupean.

12:30ean, Eneko Zamalloa memoria. Lemoako VI. Gabonetako lasterketea. Elizondon.

18:30ean manifestazioa presoan eskubideen alde "Bagoaz, bagabilz, badatoz"ek antolatuta. Elizondoko Plaza gonititik hasita.

ZEANURI

11:00etan, I. "Atoan" San Silbestre karrerea.

ZEBERIO

11:00etan, mendi urtekera Tontorrandira. Zubialdeko plazatik.

* Agenda honetan sartu ez doguzan ekintzak 5. eta 6. orrialdeetan dagoz. Urtailaren 1etik 4ra arteko ekintza guztiak be bertan dagoz.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

SALGAI

Bogaboo-a eta heshaka zuria saltzean dodaz. Deitu 679 909 869 telefonora.

SALGAI

Relax modua daukien narruzko sofa eta besaulkia saltzean doguz. Deitu 653 727 047 telefonora.

DANERIK

BEHAR BILA

Persona nagusiak eta haurren zaintza edo etxeko beharrak egiteko laguntza behar dozu? Deitu konpromiso barik. Grisel 678 104 166.

APARKALEKU ITXIA

Karabanak, autokarabanak... gordetzeko aparkaleku itxia, pabilioi baten barruan. Plaza zabalak, zenbatuak, bakotxa aseguru eta alarmeagaz. Ur lohiak garbitzeko komuna. Arratian. 671 549 015 (Jon).

ZERAMIKA IKASTAROA

Zeramika ikastaroaren hasiketea urri bigarren! Astean ordu biko klaseak,

arrastietan. Interesautaz bazagoz, animau eta deitu 615 731 182 telefonora (Saioa).

BEHAR BILA

Etxeko lanak egiten dodaz, 08:30etik 16:00ak arte. Kotxeduna. Dimoztarra. Telefonoa 634 438 725.

BEHAR BILA

Delineazino lanak egiten dodaz. CAFen esperientziaduna. Ingeniaria. Dima. Telefonoa 635 207 386.

IRAKASLE BILA

Ume bategaz ingelesez berba egiteko nonoren bila gabiz. Interesatuak deitu 605 755 604 telefonora.

BAZKIDE BILA

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Chefs* antzezlanerako.

Maiana Bustinza (Igorre)
Kamele Aurrekoetxea (Igorre)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Faboo* antzezlanerako.

Miren Atutxa (Igorre)
Nerea Basterra (Arantzazu)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 13


urte eta

ehundaka

lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Estutu. 2.- Bigarren bokala. Guzzi. Konsonantea. 3.- Galioa. Bokala. Tantaloa. 4.- Jazoera. Zeregin. 5.- Luzabide. 6.- Modua. Abereak jateko landarea. 7.- Musika nota. Letra bat. Ezetza. 8.- Bat erromatar. Mosu. Konsonantea. 9.- Ostiral.

GOITIK BEHERA

1.- Segari. 2.- Bokala. Gizon zahar. Boroa. 3.- Birritan, umeen berbetan, gozoki. Abizen bat. Proaktinioa. 4.- Nekazariaren lanabes. Bokala. Entzuten ez dauana. 5.- Tori, eutsi. Umeen berbetan, eseri. Birritan, bular. 6.- Uranioa. Abil. Letra bat. 7.- Gainezka egin.



Topau Europako zazpi uriburu.

A	L	T	Z	U	S	T	E	A	R
S	E	N	E	K	A	L	I	A	B
Z	O	R	O	D	A	S	E	X	L
U	A	U	K	S	O	M	H	B	E
F	E	G	A	L	U	D	E	R	O
P	T	O	R	K	E	R	L	A	Z
O	I	S	T	E	L	U	S	U	M
G	R	A	T	I	B	A	I	H	E
E	A	L	N	O	B	E	N	O	G
O	N	U	A	S	I	B	K	U	A
Z	A	T	S	E	N	E	I	X	I
R	B	X	J	O	E	R	O	P	A
U	M	A	N	I	F	A	R	O	L
A	T	E	N	A	S	I	D	A	R
S	E	N	I	K	O	L	A	R	B

AKI MI KO

I man Olatu



umeen moda
seim
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnos. 94 631 52 96 • seimmoda@hotmail.com

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Garbe, 29 Telefonos: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

ASEGURUAK
basolo Emaldi
Abokatuak
620. 57.86.04
aslerabasolo@hotmail.com
Bilbao-Zeanuri

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnos 649 86 95 36

NAIARA Hertz Klinika
Lehendakaria Agirre, 19
48140 Igore
94 631 52 26

Orde
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 2
48140 Igore (Bizkaia) Tfnos.: 94 673 64 25

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK, ETXEBIZITZAK, DENDAK, ISTRIPUAK, BIZITZA...
ABOKATUAK: ZUZ. ZIBILA, KONTSUMO ZUZ., ADMINISTRAZIO ZUZ., INGURUGIRO ZUZ.
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA, ZERGA, KONTABILITATEA
Tfn. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igore (Bizkaia)

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-40-54

KIRRU ILEAPANDEGIA SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 bago - 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 631 92 06

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta eskuratzeko zain ordoraz
Garbe, 10 - 48140 Igore (Bizkaia)
Telefonos 94 631 56 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: urrozak@urrozak.net

Ornatuak Herri Irakastetxeak

Gure irakastetxeak

Euskalduna
kalidadezkoa
herrikoia

<p>JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa</p> <p>Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima</p> <p>Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio</p> <p>Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri</p>	<p>Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Artea</p> <p>Arratia BHI Tel.: 94 673 62 37 Igorre</p> <p>Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza</p> <p>I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre</p>
---	--

UDAGOIEN HONETAN IRABAZTEKO ESKEINTZAK

BADAUKAZU EUKI BEHAR DOZUNA?

MOTOTERRAK

199€ tik

HDROGARBITZALEAK

129€ tik

HAIZE-MAKINAK

199€ tik

GARAJE FELIPE

Garbe 2. Igorre (Bizkaia)
Tel./Faxa 94 673 63 39
garajefelipe@euskalnet.net

Montorra z/g. Amorebieta (Bizkaia)
Tel./Faxa 94 630 90 39

www.garajefelipe.es

GALARZA

Funeraria - Ehorztetxea

funerariagalarza.com

egizu lo lasai, geu arduratuko gara zeure loaz

- Beilatokia ■ Errausketa-labea ■ Gorpuak eroan zein ekarri estatu barruan eta atzerrian
- Lora-apaingarrien salmenta ■ Gestino administratiboa ■ Eskelak, doluminak eta esker onak online

- **Bulegoa**
Zabalea, 51 · 48960 Galdakao
t. 944 570 395 (24 ordu)
f. 944 575 043
e. info@funerariagalarza.com
- **Dimako tanatorioa**
Ziarrusta industrialdea, 39
- **Galdakaoko tanatorioa**
Zabalea, 24